

euskadikomuseoak etabildumak

2012

estatistika-txostena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Aurkibidea

Aurkezpena	3
Metodologia	4
1. Euskadiko Museo-Eskaintza: Oinarrizko Elementuak	5
1.1. Euskadiko Museo eta Bildumen kokapena	5
1.2. Museo eta Bilduma motak	5
1.3. Titulartasuna eta figura juridikoa	7
1.4. Kudeaketa mota	8
1.5. Eratutako urtearen arabera banaketa	9
1.6. Patronatuak eta lagunen elkarteak	11
2. Azpiegitura, Zerbitzuak eta Ekipamenduak	13
2.1. Eraikinaren ezaugarriak	13
2.2. Zerbitzuak eta ekipamenduak	15
2.3. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia	16
3. Sarrera	19
3.1. Jendearentzako irekita egoten diren egunak eta sarrera mota	19
3.2. Sarreraren ezaugarri ekonomikoak	20
4. Museoen Jarduerak	23
4.1. Museo eta Bildumetan izandako bisitariak	23
4.2. Erakusketak eta beste jarduera batzuk	26
4.3. Argitalpenak	28
5. Museoetako Langileak	30
5.1. Museo eta Bildumei atxikitako langileak eta horien lan-harremana	30
5.2. Langileen lanbide-kategoria	31
5.3. Langileen banaketa generoaren arabera	33
5.4. Lanaldi mota	34
6. Datu Ekonomikoak	36
6.1. Finantzazioa eta sarrerak	36
6.2. Gastuen kapitulua	37
7. Museo-Funtsak	39
8. 2012ko Estatistika-Adierazleen Laburpena	42
Eranskinak	
I. 2012ko estatistikan parte hartu duten Museoak eta Bildumak	45
II. Ikerketa egiteko erabilitako galdetegia	47
Irudien aurkibidea	59

AURKEZPENA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Museoen Zentroak *Euskadiko Museoak eta Bildumak* txostena egiten du bi urtean behin eta kulturako azpiegitura hauei buruzko ikerketa estatistikoan lortutako emaitza nagusiak aurkezten ditu.

Txosten honetan 2012ko emaitza nagusiak daude eta hiru Lurralde Historikoetako 65 Museo eta Bildumak hartu dute parte. Txostenaren xedea Euskadiko museo-sektoreari buruzko funtsezko giltzarriak aurkeztea da eta, batez ere, 2012. urtearen bukaeran eskura dauden datuak eguneratzea.

Eduki hauek ditu: erakundeen ezaugarri nagusiak, azpiegitura, zerbitzu eta ekipamenduei buruzko gaiak, sarrera, informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera, erakunde horiek ikustera joaten den pertsona-kopurua, erakusketak eta burutzen dituzten bestelako jarduerak, giza baliabideak, erakunde hauen datu ekonomikoak eta museoetako funtsak.

Txosten honen emaitzak oso baliagarriak dira Museoek eta Bildumek euskal kulturari bizi duten egungo egoera eta zer kultura-azpiegitura mota dauden eta horien ezaugarri nagusiak ezagutzeko; gainera, aukera ematen du hiru Lurralde Historikoen arteko alderaketa egiteko, bai eta beste lurralde batzuekin alderatzeko ere.

Amaitzeko, eskerrak eman beharra dago Museoen eta Bildumen arduradunei eta laguntzaile guztiei beren interesagatik, lanagatik eta emandako informazioagatik, horrela, Euskadik eskaintzen duen kulturaren zati garrantzitsu bati buruz osoko ikuspegia izan baitezakegu.

METODOLOGIA

Parte-hartzea

Hiru Lurralde Historikoetako 65 Museo eta Bildumak emandako informazioa dago txostenean.

1. eranskinean dago 2012ko estatistikan parte hartu duten Museoen eta Bildumen zerrenda.

Edukiaren egituraketa

Txosteneko kapituluak, neurri handi batean, ikerketan erabilitako galdetegiko atalen arabera daude banatuta eta gai hauei buruzkoak dira, besteak beste: erakundeei buruzko datu orokorrak; azpiegitura, zerbitzuak eta ekipamendua; sarrera; erakundeen jarduera; langileak; datu ekonomikoak; museoetako funtsak. (Ikusi 2. eranskina: Ikerketa egiteko erabilitako galdetegia).

Emandako informazioa

Ikerketan parte hartu duten batzuek ez dituzte galdetegiko galdera guztiak erantzun; hori dela-eta, grafiko edo taula bakoitzean jarri da erantzun-oinarria, hau da, aldagai bakoitzari zehazki erantzun dion erakunde-kopurua.

Ikerketaren fitxa teknikoa

Metodologia	Norberak betetako inkesta ¹
Informazioa eskuratzeko tresna	Galdera itxidun galdetegia
Lortutako azken lagina	65 Museo eta Bilduma
Informazioa biltzeko data	2013ko urtarrilaren 15etik martxoaren 15era
Ikertutako urtea	2012
Eremu geografikoa	Euskal Autonomia Erkidegoa

1. Aplikazio informatiko baten bidez jaso zen informazioa, kasu gutxi batzuetan (% 15ean) paperean jaso zen arren.

1.


EUSKADIKO MUSEO-ESKAITZA: OINARRIZKO ELEMENTUAK

Lehenengo kapitulu honetan Euskadiko Museoen eta Bildumen oinarrizko ezaugarri batzuk daude: kokapena, mota, titulartasuna, kudeaketa mota, antzinatea eta erakundeak patronaturik edo lagunen elkarterik baduen.

1.1. EUSKADIKO MUSEO ETA BILDUMEN KOKAPENA

Ikerketan parte hartu dutenek (65 erakundek) emandako informazioaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoan museo-eskaintza zabalagoa dago; lurralde horretan daude Museoen eta Bildumen erdia baino gehiago. Jarraian, Bizkaia dago azpiegituren % 33,8rekin eta ondoren Araba, hamarretik birekin.

1. irudia. Museoak eta Bildumak, Lurralde Historikoen arabera (balio absolutua eta %). 2012




Oinarria: 65 Museo eta Bilduma

1.2. MUSEO ETA BILDUMA MOTAK

Euskadiko kultura-sareko Museo eta Bilduma ugariak dira, azpiegitura guztien % 21,5 baitira. Kopuruari dagokionez, Etnografia eta Antropologiako museoak dira nagusi (% 12,3); jarraian, Zientzia eta Teknologiakoak daude (% 10,8) eta, ondoren, historikoak (% 9,2). Kuantitatiboki ordezkapen txikiagoa dute arte garaikideko museoek, dekorazio-arteak eta bestelakoak atalean sartzen direnak.

2. irudia. Museoak eta Bildumak, tipologiaren arabera (%). 2012



Oinarria: 65 Museo eta Bilduma

Museoek eta Bildumek lurralde-profil bat edo bestea dute tipologiaren arabera:

- **Gipuzkoan**, Museo eta Bilduma espezializatuak dira nagusi, Zientzia eta Teknologiar, natur zientziei eta historia naturalari eta Etnografia eta Antropologiar eskaintakoak ere nabarmentzen diren arren, hein txikiagoan bada ere.
- **Bizkaian**, aldiz, museo historikoak eta espezializatuak dira nagusi; hein txikiagoan arte ederretakoak eta Zientzia eta Teknologiaokoak.
- **Arabari** Museo eta Bilduma espezializatuak nabarmentzen dira, eta hein txikiagoan arte ederretakoak, Etnografia eta Antropologiaokoak eta Museo-etxeak.

3. irudia. Museoak eta Bildumak, tipologiaren eta Lurralde Historikoen arabera (% bertikala). 2012

Tipologia	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Arkeologikoak	7,7	4,5	6,7
Arte Garaikidea	7,7	4,5	--
Dekorazio-arteak	--	4,5	--
Arte Ederrak	15,4	13,6	--
Museo-etxeak	15,4	--	3,3
Zientzia eta Teknologia	--	13,6	13,3
Natura-zientziak eta Historia Naturala	7,7	--	13,3
Aztarnategiak	7,7	9,1	6,7
Espezializatuak	23,1	18,2	23,3
Etnografia eta Antropologia	15,4	9,1	13,3
Orokorra	--	4,5	10,0
Historikoa	--	18,2	6,7
Bestelakoak	--	--	3,3


Oinarria: 65 Museo eta Bilduma

1. Talde honetan daude beste taldeetan sartu ezin diren Museoak eta Bildumak.

1.3. TITULARTASUNA ETA FIGURA JURIDIKOA

Gutxi gorabehera, Euskadiko hamar Museo eta Bildumatatik sei publikoak dira. Erakunde hauen % 35 inguru pribatuak dira eta % 6k baino ez du titulartasun partekatua (erakunde publiko eta pribatuak aldi berean).


4. irudia. Museoen eta Bildumen titulartasuna (%). 2012



Oinarria: 65 Museo eta Bilduma

Titulartasun publikoko Museo eta Bildumei dagokienez, figura juridiko nagusia tokiko administrazioa da (% 80), zehatz esateko, aldundiak eta udalak. Beste figuren (% 13,2) edo administrazio autonomikoaren (% 5,2) pisua askoz txikiagoa da.

5. irudia. Titulartasun pribatuko Museoen eta Bildumen figura juridikoa (%). 2012



Oinarria: 38 Museo eta Bilduma

Beste figura juridikoekiko alde nabarmena dute fundazioek Museo eta Bilduma pribatuetan, % 60 inguru dira. Gainerako figurek (elizakoa, elkarte, kide bakarrekoa, asoziazioa) pisu erlatibo txikiagoa dute.

6. irudia. Titulartasun pribatuko Museoen eta Bildumen figura juridikoa (%). 2012


Figura Juridikoa	Guztizkoaren %
Fundazioa	56,5
Elizakoa	8,7
Sozietatea	8,7
Kide bakarrekoa	8,7
Elkarte	8,7
Bestelakoak	8,7

Oinarria: 23 Museo eta Bilduma

1.4. KUDEAKETA-MOTA

Museo eta Bilduma gehienek kudeaketa pribatua dute, hain zuzen ere % 54 inguruk erabiltzen du kudeaketa hau. Baina antolaketan eta kudeaketan kudeaketa publikoa duten erakundeen ehunekoa ere handia da (% 43).

7. irudia. Museoak eta Bildumak kudeatzen dituzten erakundeak (%). 2012



Oinarria: 65 Museo eta Bilduma


Kudeaketa pribatua duten erakundeek museo-espazioan antolatzen diren jarduerak Fundazioen bidez antolatzen dituzte askotan (% 48,6), nahiz eta Sozietateak bezalako erakunde motek ere nolabaiteko ordezkariak izan.

8. irudia. Museo eta Bildumak kudeatzen dituzten erakunde pribatuak (%). 2012

Erakunde Pribatuak	Guztizkoaren %
Fundazioa	48,6
Sozietatea	20,0
Elkartea	14,3
Elizakoa	2,9
Kide bakarrekoa	2,9
Bestelakoak	11,4

Oinarria: 35 Museo eta Bilduma

Ondarearen titulartasunaren kasuan bezala, museoen kudeaketa publikoa toki administrazioaren bidez egiten da batez ere (kudeaketa publikoko espazioen % 75) eta, zehatz esateko, tokiko erakundeen bidez, hala nola, udalen, aldundien eta bestelako erakundeen bidez.


9. irudia. Museo eta Bildumak kudeatzen dituzten erakunde publikoak (%). 2012

Oinarria: 28 Museo eta Bilduma

1.5. ERATUTAKO URTEAREN ARABERAKO BANAKETA

Irekiera-urtearen arabera, Euskadiko Museo eta Bildumek batez beste 22 urte dituzte. Gehienak, ia % 72, azken 25 urteetan eratu dira, eta erakundeen ia herenak historia luzea du (25 urte baino gehiago).

10. irudia. Museoen eta Bildumen antzinatasuna (irekiera urtearen arabera, %). 2012




Batez besteko antzinatasuna: 22,4 urte

Oinarria: 64 Museo eta Bilduma

Ibilbiderik luzeeneko Museoak eta Bildumak dituzten Lurralde Historikoak Bizkaia eta Araba dira, 27,6 eta 23,1 urte baituzte hurrenez hurren. Gipuzkoakoak, aldiz, geroago eratu ziren eta batez beste 18,6 urte dituzte; are gehiago, duela 10 urte baino gutxiago sortutako erakundeen ehunekoak ere oso handia da.

11. irudia. Museoen eta Bildumen antzinatasuna, Lurralde Historikoaren arabera (irekiera urtearen arabera, % bertikala). 2012




Oinarria: 64 Museo eta Bilduma

Arabari dagokionez, 25 urte baino gehiagoko museoak dira nagusi. Bizkaian, aldiz, museo kopuru berdina dago aztertutako 3 aldietan.

1.6. PATRONATUAK ETA LAGUNEN ELKARTEAK

Ikerketan parte hartutako Euskadiko Museo eta Bildumarik gehienek (zehatz esateko, erakundeen % 55,4k) ez du patronaturik edota lagun-en elkarterik.


12. irudia. Patronatua edota lagun-en elkartera duten edota ez duten Museoak eta Bildumak (%). 2012



Oinarria: 65 Museo eta Bilduma

Babes mota hau badutenen artean (% 44,6), patronatuak dira ohikoenak (% 48,9). Bestalde, hamar erakundetatik ia bik biak dituzte, bai patronatua bai lagun-en elkartera.


13. irudia. Patronatua edota lagun-en elkartera duten Museoak eta Bildumak, tipologiaren arabera (%). 2012



Oinarria: 29 Museo eta Bilduma

Zientzia- eta teknologia-museoak eta espezializatuak dira patronatuak edota lagunen elkarteak dituztenak, batez ere. Baina babes-formula hauek ez daude hain zabaldua arkeologiako, dekorazio-arteko, museo-etxeetako, natura-zientzia eta historia naturaleko eta gai orokorretako museoetan.

14. irudia. Patronatua edota lagunen elkartearen duten Museoak eta Bildumak, Lurralde Historikoaren arabera (%). 2012



Oinarria: 29 Museo eta Bilduma

Gipuzkoako eta Bizkaiko museoak dira patronatuen eta lagunen elkarten babesik handiena dutenak; zehatz esateko, azterketan parte hartu duten erakundeen % 44,8k du horrelako babesen bat. Araban, aldiz, ez dira ohikoak.

2.


AZPIEGITURA, ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK

Bigarren kapituluan Museoak eta Bildumak hartzen dituzten eraikinen ezaugarri nagusiez jardungo dugu, baita beren ekipamenduez edota eskaintzen dituzten zerbitzuez ere. Erakundeetan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak nola erabiltzen dituzten ere aipatuko dugu.

2.1. ERAIKINAREN EZAUGARRIAK

Euskadiko Museo eta Bilduma gehienak 1951etik gaur egunera arte eraikitako azpiegituretan daude. Dena dela, 1900 baino lehenagoko eraikin historikoetan ere erakunde-kopuru handia dagoela esan beharra daukagu. Eraikinek batez beste 175 urte dituzte, eta batezbesteko hau handiagoa da Gipuzkoan (187 urte) Bizkaian (161 urte) edo Araban (176 urte) baino.

15. irudia. Museo eta Bildumen eraikinen eraikuntza-urtea (%). 2012




Batez besteko antzintasuna: 176,3 urte

Oinarria: 56 Museo eta Bilduma

Azken urteetako erreformak eta eraberritzeak azpimarratu beharra dago, eraikinen % 80 inguru eraberritu baita 2000. urteaz geroztik. % 7,1 soilik dira 20 urte baino gehiagoan eraberritzerik izan ez dutenak.


16. irudia. Museo eta Bildumen azken eraberritzearen urtea (%). 2012



Oinarria: 56 Museo eta Bilduma

Kasurik gehienetan (% 70 inguruan) Museoak eta Bildumak dauden eraikinak egokitu egin dira kultura-jardueran aritzeko, jatorrian beste erabilera baterako baitziren. % 22 baino ez dira museo izateko sortuak, eta gainerakoak bi aukeretarako eraiki ziren.


17. irudia. Museoak eta Bildumak eraikin motaren arabera (%). 2012



Oinarria: 61 Museo eta Bilduma

Kasurik gehienetan museoa eraikin bakarrean dago, nahiz eta % 30 inguruk bi eraikin edo gehiagotan burutu jarduera.

18. irudia. Museoak eta Bildumak eraikin-kopuruaren arabera (%). 2012



Oinarria: 65 Museo eta Bilduma

Euskadin Museo eta Bildumek 93.000 m² inguruko espazio hartzen dute. Azpiegitura bakoitzaren batez besteko azalera 13.178,2 m² da. Museoentzako osoko azalera eta biztanleria alderatuz gero, Euskadin 1.000 biztanleko 42,2 m² ditugu¹.

19. irudia. Museoen eta Bildumen batez besteko azalera erabilgarria, tipologiaren arabera (balio absolutua, m²). 2012

Tipologia	Azalera erabilgarria (batezbestekoa m ²)
Espezializatuak	49.909,9
Arte Garaikidea	18.750,0
Orokorra	4.747,0
Arte Ederrak	4.362,0
Etnografia eta Antropologia	3.904,5
Zientzia eta Teknologia	3.514,8
Dekorazio-arteak	2.460,0
Aztarnategiak	1.403,2
Arkeologikoak	1.329,3
Historikoa	965,2
Bestelakoak	600,0
Museo-etxeak	350,0
Natura-zientziak eta Historia Naturala	294,0
Batez besteko azalera GUZTIRA	13.178,2

Oinarria: 62 Museo eta Bilduma

Gainerako tipologiekin alderatuz gero, alde handia dute museo espezializatuak eta arte garaikidekoak, batezbestekoak baino azalera askoz handiagoa baitute (49.909 m² eta 18.750 m², hurrenez hurren). Aldiz, espaziorik txikiena natura-zientzia eta historia naturalekoak eta museo-etxeak dute.

2.2. ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK

Museoek eta Bildumek gero eta zerbitzu eta ekipamendu gehiago dituzte beren instalazioetan. Eskaintzen dituzten zerbitzuen artean, ia denek bisita gidatuak dituzte eta erakusketa iraunkorrei buruzko informazioa ere bai. Kasuen % 40 baino gehiagotan ezinduentzako informazioa ere eskaintzen da. Iraun ahal izateko, museoek euren aretoak alokatzen dizkiete hirugarrenei, ekitaldietarako, jardunaldietarako, etab.

1. EAEko biztanleria, 2012ko datuen arabera, 2.193.093 lagunekoa da (Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala – Udal eroldaren ustiaketa).

20. irudia. Museoak eta Bildumak, zerbitzu- eta ekipamendu-baliabideen arabera (%). 2012

	Baliabideak	Museoen %
ZERBITZUAK	Ikustaldi gidatuak	96,9
	Erakusketa iraunkorrei buruzko informazioa	96,9
	Bestelako informazioa (liburuxkak...)	89,2
	Urrituentzako informazio irisgarria	43,1
	Hirugarrenei espazioak alokatzea	40,0
	Ingurumen-kontrola	35,4
	Gidak euskarri elektronikoan (audiogidak/zeinugidak)	29,2
EKIPAMENDUA	Aretoakoak (panelak, aretoko orria, etab.)	92,3
	Urritasunen bat dutenentzako sarbidea	86,2
	Saltokia/Liburutegia	72,3
	Jarduera didaktikoetarako lekua	66,2
	Ikus-entzunezko gela	64,6
	Liburutegia	63,1
	Ekitaldi-aretoa	47,7
	Aparkaleku publikoa	38,5
	Ikerlarietzako aretoa	35,4
	Zaharberritze-tailerra	32,3
	Kafetegia/Jatetxea	26,2
	Argazkigintza-laborategia	6,2


Oinarria: 65 Museo eta Bilduma (erantzun anitza)

Gutxien hedatutako zerbitzuak ingurumen-kontrola eta erakusketen jarraipena egiteko euskarri elektronikoan dauden gidak dira.

Ekipamenduari dagokionez, elementurik ohikoenak aretoetan egoten den informazioa (panelak, etab.), urritasunen bat dutenentzako sarbidea eta museoeko produktuak saltzeko dendak eta liburutegiak dira. Gutxien dauden ekipamenduak ikerketari lotutakoak dira, hala nola, ikerketarako aretoak, zaharberritze tailerrak eta, batez ere, argazkigintzako laborategiak.

2.3. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak oso presente daude Euskadiko museoetan; ekipamendu informatikoa eta informazioa eskaintzen duten web-orriak dituzte gehienek.

21. irudia. Museoak eta Bildumak, ordenagailuen eta webguneen arabera (%). 2012

Oinarria: 65 Museo eta Bilduma

Gaur egun erakundeek webguneak izatea egokia den arren, museoetako batzuek oraindik ez dute Internetera zabaldutako leihorik, bereziki Etnografia eta Antropologiakoek (% 25ak ez du), arkeologiakoek (% 25), natura-zientzia eta historia naturalekoek (% 20), aztarnategiek (% 20), Zientzia eta Teknologiakoek (% 15) eta espezializatuek (% 15).


22. irudia. Museo eta Bildumek webgunerik baduten, tipologiaren arabera (%). 2012

Tipologia	Webgunea duten erakundeen %
Arte Garaikidea	100,0
Dekorazio-arteak	100,0
Arte Ederrak	100,0
Museo-etxeak	100,0
Orokorra	100,0
Historikoa	100,0
Bestelakoak	100,0
Zientzia eta Teknologia	85,7
Espezializatuak	85,7
Natura-zientziak eta Historia Naturala	80,0
Aztarnategiak	80,0
Arkeologikoak	75,0
Etnografia eta Antropologia	75,0

Oinarria: 65 Museo eta Bilduma


Museoetako ekipamendu informatikoak, nagusiki, zeregin administratiboetarako erabiltzen dira, baita Internetera sartzeko ere. Gutxiago erabiltzen dira funtsak dokumentatzeko edo ikusleei informazioa eskaintzeko (% 70 inguru).

23. irudia. Ordenagailuaren erabilera Museo eta Bildumetan (%). 2012



Oinarria: 61 Museo eta Bilduma (erantzun anitza)

Bestalde, museoetako webguneen helburu nagusia informazioa eta komunikazioa eskaintzeko erakuslehi izatea da. Balizko ikusleari oinarrizko informazioa eskaintzeko erabiltzen dira batez ere webguneak (helbidea, programazioa, ordutegia, tarifak, etab.), ikusleak museoarekin harremanetan jartzeko (helbide elektronikoa...) eta alderantziz.

24. irudia. Museo eta Bildumetako web-orrien helburuak (%). 2012

Oinarria: 61 Museo eta Bilduma (erantzun anitza)

Gero eta gehiagotan erabiltzen dira ikastetxeei, familiei eta bestelakoei jarduera hezigarriak eskaintzeko.

Gutxiagotan erabiltzen dira espazio birtual hauek on line zerbitzuak eskaintzeko, bildumetara sartu ahal izateko, ikerketa zientifikorako informazioa eskuratzeko edo bestelako on line zerbitzuetarako. Sarrerak on line saltzea oso hedatuta dagoen arren Euskadiko beste kultura-jarduera batzuetan, gaur egun oraindik ere ez da asko erabiltzen museoek kasuan, eta % 10ak baino ez du sarrerak saltzeko bide hau erabiltzen.

3.


SARRERA

Hirugarren kapitulu honetan aztertuko dugu Museo eta Bildumak zein egunetan egoten diren jendearentzako irekita, zer sarrera mota duten eta 2012an zer tarifa aplikatu diren.

3.1. JENDEARENTZAKO IREKITA EGOTEN DIREN EGUNAK ETA SARRERA MOTA


Euskadiko Museo eta Bilduma gehienak jendeari irekita daude. Hamar museotatik zortzi urtean 300 egun baino gehiago egoten dira irekita.

25. irudia. Museoak eta Bildumak, jendearentzako irekita egoten diren aldiaren arabera (%). 2012




Oinarria: 65 Museo eta Bilduma

26. irudia. Museoak eta Bildumak, urtean irekita egoten diren egunen kopuruaren arabera (%). 2012




Oinarria: 63 Museo eta Bilduma

Museo-espazio guztien instalazioetara sartzeko mugarik ez dagoen arren, erdietan baino gehiagotan aurrez eskaera egin beharra dago taldeen kasuan (% 75), eta gutxi batzuetan beti (% 25).

27. irudia. Museo eta Bildumetako sarrera motak (%). 2012

Oinarria: 65 Museo eta Bilduma


28. irudia. Museo eta Bildumak ikusteko aldez aurretiko eskaera (%). 2012

Oinarria: 65 Museo eta Bilduma

3.2. SARRERAREN EZAUGARRI EKONOMIKOAK

Kultura-azpiegitura hauetako gehienetara sartzeko sarrera ordaindu behar da, eta % 23 baino ez dira doan. Sarrera ordaindu beharrak bereizketa nabarmena eragiten du espazio batzuen eta besteen artean.


29. irudia. Museoen eta Bildumen sarrera mota (%). 2012



Oinarria: 65 Museo eta Bilduma

Adibidez, museo orokorretako nahiz arte garaikideko, dekorazio-arteetako eta bestelako museotan sartzeko sarrera erosi beharra dago. Ohikoagoa da natura-zientzia eta historia naturaleko museotan eta historikoetan sarrera doan izatea.


30. irudia. Museoen eta Bildumen tarifa mota, tipologiaren arabera (%). 2012



Oinarria: 65 Museo eta Bilduma

Instalazioetan sartzeko kobratzen duten hamar Museo eta Bildumatatik zazpik tarifa osoak eskaintzen dituzte (oinarrizko tarifa, berariazko tarifak dituztenaldi baterako erakusketak sartu gabe). Ohikoa da talde jakin batzuei tarifa murriztuak edo doanekoak eskaintzea ere. Hein txikiagoan (% 38,5) eskaintzen dira pase bereziak (urtekoak, doakoak, konbinatuak edo bestelako paseak).


31. irudia. Sarrera kobratzen duten Museo eta Bildumetako tarifa mota (%). 2012




Oinarria: 65 Museo eta Bilduma

Doako sarrerak haurrentzako izaten dira, batez ere, eta halaxe da museoen % 78ren kasuan. Aldiz, gutxik dute doako sarrerarik beste taldeentzat, hala nola, adinekoentzat, ikasleentzat, tokiko biztanleriarentzat, urrituentzat edo taldeentzat.

32. irudia. Museoak eta Bildumak, doako sarrerak eta tarifa murriztukoak balia ditzaketen taldeen arabera (%). 2012



Oinarria: 45 Museo eta Bilduma (erantzun anitza)



Oinarria: 44 Museo eta Bilduma (erantzun anitza)

Tarifa murriztuei, esan beharra dago espazio kulturaletan gehiago erabiltzen direla; batez ere talde, ikasle edo adinekoentzako.

4.


MUSEOEN JARDUERAK

Kapitulu honetan Euskadiko Museo eta Bildumen jarduera nagusiak aztertuko ditugu, bisitari-kopurua, erakusketak, argitalpenak eta erakunde horiek sustatzen dituzten beste jarduera batzuk kontuan izanda.

4.1. MUSEO ETA BILDUMEK IZANDAKO BISITARIAK

2012 urtean 2,7 milioi lagun inguru (zehatz esateko 2.698.605) izan dira Euskadiko museoetan, museo bakoitzak 42.166 bisitari inguru izan ditu batez beste¹, nahiz eta zifra horrek alde handiak dituen Lurralde Historikoaren eta museoaren tipologiaren arabera.

33. irudia. Museo eta Bildumetarako aurreikusitako bisitari-kopurua Lurralde Historikoaren arabera, bisitariak guztira eta batez bestean kontuan hartuta (% eta balio absolutua). 2012



Oinarria: 64 Museo eta Bilduma

Lurralde-aldagaiari dagokionez, esan beharra dago Bizkaiko museoetan bisitari ugari izan dela: Euskadiko museoren batean izan diren hamar bisitaritik sei Bizkaian izan dira. Bisitarien batezbestekoa ere askoz handiagoa da, Gipuzkoan baino azpiegitura gutxiago dagoen arren (museo-azpiegituren % 34 inguru Bizkaian dago eta Gipuzkoan % 46,2).

1. 64 Museo eta Bildumak emandako informazioaren arabera.

Museoetan izaten direnen ia % 70 hiru tipologiatan pilatzen dira: arte garaikideko museoetan, museo orokorretan eta arte ederretakoetan.

34. irudia. Museo eta Bildumetarako aurreikusitako bisitari-kopurua, tipologiaren arabera (balio absolutua eta %). 2012

Tipologia	Aurreikusitako bisitari-kopurua	Gutzizkoaren %
Arte Garaikidea	1.116.610	41,4
Orokorra	438.473	16,2
Arte Ederrak	338.992	12,6
Espezializatuak	247.493	9,2
Zientzia eta Teknologia	229.770	8,5
Etnografia eta Antropologia	94.293	3,5
Aztarnategiak	56.003	2,1
Historikoa	54.499	2,0
Arkeologikoak	40.765	1,5
Museo-etxeak	40.548	1,5
Natura-zientziak eta Historia Naturala	20.081	0,7
Dekorazio-arteak	8.874	0,3
Bestelakoak	12.204	0,5
GUZTIRA	2.698.605	100,0

Oinarria: 64 Museo eta Bilduma

Lurraldea eta gaia aldagaiak gurutzatuz gero, alde nabarmenak daude hiru kasuetan:

- **Arabian**, bisitarien % 70 baino gehiago bi motako museoetan kontzentratzen da, arte garaikidekoan eta espezializatuan.
- **Bizkaian**, arte garaikidea da lurraldeko museoek eskaintzan jarraitzaile gehien dituen gaia, nahiz eta arte ederretako museoetan ere bisitari ugari egon.
- **Gipuzkoan**, museoetara joaten direnen joera ez da hain orokorra, ikustaldien % 84 inguru museo orokorretara, Zientzia eta Teknologiaetara eta espezializatueta egiten da.


35. irudia. Museo eta Bildumetarako aurreikusitako bisitari-kopurua, tipologiaren eta Lurralde Historikoen arabera (balio absolutua). 2012

Tipologia	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Arkeologikoak	5.812	12.945	22.008	40.765
Arte Garaikidea	102.506	1.014.104	--	1.116.610
Dekorazio-arteak	--	8.874	--	8.874
Arte Ederrak	23.371	315.621	--	338.992
Museo-etxeak	10.215	--	30.333	40.548
Zientzia eta Teknologia	--	25.911	203.859	229.770
Natura-zientziak eta Historia Naturala	8.981	--	11.100	20.081
Aztarnategiak	2.098	21.701	32.204	56.003
Espezializatuak	50.766	83.543	113.184	247.493
Etnografia eta Antropologia	11.250	54.324	28.719	94.293
Orokorra	--	13.205	425.268	438.473
Historikoa	--	47.290	7.209	54.499
Bestelakoak	--	--	12.204	12.204
GUZTIRA	214.999	1.597.518	886.088	2.698.605

Oinarria: 64 Museo eta Bilduma

Azken urteetan Euskadi izaten ari den garapen turistikoaren ondorioz, museoetan atzerritar ugari izaten da. Museoen % 75 inguruk izan ditu 2012an bisitari atzerritarak.

36. irudia. Atzerriko bisitariak izan dituzten Museo eta Bildumak (%). 2012



Oinarria: 64 Museo eta Bilduma

Ikerketan parte hartu duten Euskadiko Museo eta Bildumek emandako datuen arabera, 2012. urterako aurreikusitako atzerriko bisitarien kopurua 867.243 lagunekoa izan da, hau da, Euskadiko kultura-espazio hauetako bisitari guztien % 30 baino apur bat gehiago.


37. irudia. Museo eta Bildumetan aurreikusitako atzerriko bisitarien kopurua, Lurralde Historikoen arabera (balio absolutua eta %). 2012

Lurralde Historikoak	Atzerriko bisitarien kopurua	Atzerritarren % , LHko bisitarien kopuru osoa oinarri hartuta	Atzerritarren % , Euskadiko bisitari atzerritar guztiak oinarri hartuta
Araba	19.922	9,3	2,3
Bizkaia	713.576	44,7	82,3
Gipuzkoa	133.745	15,1	15,4
GUZTIRA Euskadi	867.243	32,1	100,0

Oinarria: 64 Museo eta Bilduma

Bizkaia da inolako zalantzarik gabe, atzerriko bisitari gehien izaten duen Lurralde Historikoa, bai Euskadira etortzen diren atzerriko bisitari kopurua oinarri hartuta bai lurraldeko bisitarien ehunekoa hartuta. Beste muturrean Araba dago, lurralde horretako museoetan izaten baita bisitari atzerritar gutxien.

38. irudia. Museo eta Bildumetan aurreikusitako bisitari atzerritarren kopurua, tipologiaren arabera (%). 2012




Oinarria: 64 Museo eta Bilduma

Museoetako azpiegituren tipologiari dagokionez, arte garaikideko museoek hartzen dute bisitari atzerritarren ehuneko handiena. Portzentajea askoz ere txikiagoa da museo orokorren kasuan.

4.2. ERAKUSKETAK ETA BESTE JARDUERA BATZUK

Euskadiko hamar museoetatik ia zortzitan aldi baterako erakusketaren bat inauguratu edo hasi da 2012an.


39. irudia. Museo eta Bildumetako aldi baterako erakusketak (%). 2012



Oinarria: 65 Museo eta Bilduma

Aldi baterako erakusketak ohikoagoak dira arte garaikideko, dekorazio-arteetako, arte ederretako, gai orokorreko eta bestelako museoetan. Horrelako erakusketak sarriago egiten dira pertsonaia baten egoitzan dauden museoetan (museo-etxeetan) eta ondasun historiko batzuk museo bihurtzekoetan (aztarnategietan).


40. irudia. Museo eta Bildumetan egindako aldi baterako erakusketak, tipologiaren arabera (%). 2012



Oinarria: 65 Museo eta Bilduma


Euskadiko Museo eta Bildumek museo-jarduerak beste mota batzuetako ekimenekin osatzen dituzte. Erakundeen % 85 inguruk jarduera hezigarriak egiten ditu talde berezientzat, eta erakundeen zeregin osagarri nagusia da.

41. irudia. Museoek eta Bildumek egindako beste jarduera batzuk (%). 2012



Oinarria: 63 Museo eta Bilduma (erantzun anitza)

Garrantziari dagokionez, formatu desberdinetan eskaintzen diren prestakuntzako eta informazioko jarduerak ere azpimarratu beharra dago (ikastaroak, tailerrak, mintegiak eta jardunaldiak), baita hitzaldiak eta proiektzioak eta ikus-entzunezkoak ere. Gutxien hedatutako jarduera kontzertuena da.


42. irudia. Museoetan eta Bildumetan egindako jarduera hezigarrien tipologia (%). 2012

Oinarria: 53 Museo eta Bilduma (erantzun anitza)

Jarduera hezigarri hauek haurrei zuzenduta egoten dira, batez ere. Bigarren taldean familiei eta hirugarren adinekoei eskainitako jarduerak leudeke. Kuantitatiboki ordezkapen txikiagoa dute urritasuna dutenei edo gutxiengo etnikoei eskainitako jarduerak, hau da, talde ahulenei eskainitakoek.

4.3. ARGITALPENAK


Ikerketan parte hartu duten Museo eta Bildumen % 85ek argitalpenen bat argitaratu du 2012. urtean, euskarri batean edo bestean.

43. irudia. Museo eta Bildumen argitalpenak (%). 2012

Oinarria: 65 Museo eta Bilduma

Gehienetan dibulgazioko materiala argitaratu dute; horixe da, hain zuzen ere, erakundeetan hedatuen dagoen argitalpen mota. Jarraian, material didaktikoa dago, hein txikiagoan izan arren (% 47,3), ondoren gidaliburuak (% 36,4) eta aldizkako argitalpenak (% 30,9). Hein txikiagoan argitaratzen dira katalogo zientifikoak (partaideen % 21,8k).


44. irudia. Museoez eta Bildumek 2012an argitaratutako argitalpenak (%). 2012



Oinarria: 55 Museo eta Bilduma (erantzun anitza)

Argitalpen gehienak gaztelaniaz eta euskaraz egoten dira (Museo eta Bildumen % 65ek hizkuntza hauek erabiltzen ditu). Atzerriko hizkuntzen artean ingelesa eta frantsesa dira nagusi, aldiz, Europar Batasuneko edo hortik kanpoko gainerako hizkuntzetan ez da ia ezer argitaratzen.


45. irudia. Museo eta Bildumek 2012an argitaratutako lanetan erabilitako hizkuntzak. (%). 2012



Oinarria: 55 Museo eta Bilduma (erantzun anitza)

Argitalpenetarako erabiltzen den euskarri motari dagokionez, ia denak paperean argitaratzen dira. Gainerako euskarriei dagokienez, pisu handiagoa dute webgunerako formatu elektronikoan argitaratzen dutenek (% 50,9).

46. irudia. Museo eta Bildumek 2012an argitaratutako lanetan erabilitako euskarria (%). 2012



Oinarria: 55 Museo eta Bilduma (erantzun anitza)

5.

MUSEOETAKO LANGILEAK


Euskadiko Museo eta Bildumen zerbitzura dauden langileei buruzko oinarritzko informazioa dago kapitulu honetan. Lan-harremana, lanbide-kategoria, generoa eta jardunaldi mota bezalako alderdiak aztertu dira.

5.1. MUSEO ETA BILDUMEI ATXIKITAKO LANGILEAK ETA HORIEN LAN-HARREMANA

Euskadiko 64 Museo eta Bildumak emandako datuen arabera, 726 lagun ari dira lanean; horrek esan nahi du museo bakoitzeko 11 pertsona daudela, batez beste.

Museo edo Bilduma batek zuzenean enplegatutako profesional gehienak ordainpeko langile finkoak dira (funtzionarioak eta kontratu finkoa dutenak barne). Aldi baterako kontratua duten ordainpekoak gutxiago dira (% 13,9).

47. irudia. Museo eta Bildumei atxikitako langileak, horien lan-harremanaren arabera (%). 2012



Oinarria: 64 Museo eta Bilduma

Museo eta Bildumetako langileen % 3,8 bakarrik aritzen da ordainik jaso gabe (adibidez elizako langileak). Apur bat gehiago dira modu altruistan lan egiten duten erakundeaz kanpoko pertsonak (boluntarioak guztizkoaren % 10,3 dira).

48. irudia. Museo eta Bildumetako langileak, lan-harremanaren eta tipologiaren arabera (% horizontala). 2012

Tipologia	Ordaindu/ Kontratu iraunkorra	Ordaindu/ aldi baterako lanpostua	Ordaindu gabea	Boluntarioa	GUZTIRA
Arkeologikoak	92,5	7,5	0,0	0,0	100,0
Arte Garaikidea	96,6	3,4	0,0	0,0	100,0
Dekorazio-arteak	66,7	33,3	0,0	0,0	100,0
Arte Ederrak	77,0	23,0	0,0	0,0	100,0
Museo-etxeak	75,0	12,5	0,0	12,5	100,0
Zientzia eta Teknologia	52,5	35,0	3,8	8,8	100,0
Natura-zientziak eta Historia Naturala	77,8	11,1	11,1	0,0	100,0
Aztarnategiak	71,1	10,5	18,4	0,0	100,0
Espezializatuak	64,2	10,6	5,7	19,5	100,0
Etnografia eta Antropologia	37,7	8,7	11,6	42,0	100,0
Orokorra	81,3	18,8	0,0	0,0	100,0
Historikoa	89,7	10,3	0,0	0,0	100,0
Bestelakoak	51,7	0,0	0,0	48,3	100,0


Oinarria: 64 Museo eta Bilduma

Museoen tipologiaren arabera, bakoitzeko giza baliabideen lan-harremanetan alde nabarmenak daude:

- Lanpostu finkoko ordainpeko langileak dira nagusi arte garaikideko, arkeologiako, historiako eta gai orokorreko museoetan. Beste muturrean daude etnografiako eta antropologiako museoak.
- Aldi baterako kontratuak ohikoagoak dira Zientzia eta Teknologiako eta dekorazio-arteako Museo eta Bildumetan (langileen ehuneko % 30 handiagoa da).
- Ordaindu gabeko langile gehien aztarnategietan dago, esaterako, interpretazio arkeologikoko zentroetan eta Etnografia eta Antropologiako museoetan.
- Boluntarioei dagokienez, pisu garrantzitsua dute Etnografia eta Antropologiako Museo eta Bildumetan eta bestelakoen taldean sartzen direnetan.

Lan-harremanaren araberako banaketari buruzko atal hau amaitzeko, praktiketako langileei buruzko informazioa daukagu. Museoen % 30 inguruk bekadunak edo praktiketako ikasleak izan ditu 2012. urtean.

49. irudia. Museo eta Bildumetan bekadunak edo praktiketari ari diren ikasleak kontratatzea (%). 2012




Oinarria: 64 Museo eta Bilduma

5.2. LANGILEEN LANBIDE-KATEGORIA

Museo jardueren kudeaketari lotutako lanpostuak Euskadiko Museo eta Bildumei atxikitako giza baliabideen % 70 dira. Kudeaketa-jardueraren barruan, lanbide-kategoriek ordena hau dute enpleguen proportzioaren arabera:

- Hasteko, profesional espezializatuak daude (kontserbatzaileak, zaharbertzaileak, liburutzaileak, gidariak...), giza baliabide guztien % 40 inguru dira.
- Ondoren, % 20 inguru, administrazio-lanetan aritzen dira (gerenteak, administrariak, laguntzaileak...).
- Eta azkenik, erakundeetako zuzendariak daude (% 11,3).

50. irudia. Museo eta Bildumei atxikitako langileak, horien lanbide-kategoriaren arabera (%). 2012



Oinarria: 64 Museo eta Bilduma

Babes-jarduerari eta jarduera transbertsalei lotutako enpleguak Euskadiko Museo eta Bildumetako langile guztien % 30 dira. Hemen sartzen dira mantentze-lanak egiten dituztenak, garbitzaileak, zaintzaileak eta beste maila batzuetakoak.

51. irudia. Museo eta Bildumei atxikitako langileak, lan-harremanaren eta tipologiaren arabera (% horizontala). 2012

Tipologia	Museoko jardueren kudeaketari lotutako lanpostuak			Laguntza-postuei lotutako langileak eta transbertsalak			GUZTIRA
	Zuzendaritza	Langile espezializatuak	Administrazioko langileak	Zaintza- eta segurtasun-langileak	Mantentze-langileak eta garbitzaileak	Beste bat	
Arkeologikoak	7,5	45,0	10,0	20,0	17,5	0,0	100,0
Arte Garaikidea	1,7	12,7	46,6	5,1	0,0	33,9	100,0
Dekorazio-arteak	14,3	14,3	28,6	0,0	0,0	42,9	100,0
Arte Ederrak	5,7	29,9	16,1	17,2	16,1	14,9	100,0
Museo-etxeak	12,5	87,5	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Zientzia eta Teknologia	8,8	50,0	17,5	0,0	20,0	3,8	100,0
Natura-zientziak eta Historia Naturala	11,1	38,9	22,2	11,1	16,7	0,0	100,0
Aztarnategiak	10,5	60,5	15,8	2,6	10,5	0,0	100,0
Espezializatuak	24,4	34,1	10,6	13,8	7,3	9,8	100,0
Etnografia eta Antropologia	26,1	50,7	8,7	0,0	1,4	13,0	100,0
Orokorra	3,8	56,3	11,3	15,0	12,5	1,3	100,0
Historikoa	17,2	27,6	31,0	6,9	17,2	0,0	100,0
Bestelakoak	3,4	27,6	51,7	0,0	17,2	0,0	100,0

Oinarria: 64 Museo eta Bilduma

Tipologiaren arabera langileak nola banatuta dauden aztertu ondoren, batetik bestera alde handiak daudela ikus daiteke. Pertsonal espezializatuak, esaterako (kontserbatzaileak, zaharbertzaileak, liburuzainak, gidariak...), oso garrantzitsuak dira museo-etxeetan, zientzia- eta teknologia-museoetan, aztarnategietan, etnografia- eta antropologia-museoetan eta museo orokorretan; administrazioko langileak arte garaikideko eta besteak ataleko museoetan dira garrantzitsuak; babes-langileak eta transbertsalak, aldiz, museo arkeologikoetan, arte ederretakoetan eta natura-zientzia eta historia naturalekoan dira nagusi.

Plantilletan ohikoenak ordaindutako langile finkoak diren arren, lanbide-kategoriaren arabera banaketa aztertuz gero ñabardura azpimarragarri batzuk ageri dira.

52. irudia. Museo eta Bildumei atxikitako langileak, lanbide-kategoriaren eta lan-harremanaren arabera (% horizontala). 2012

Lanbide-kategoria	Ordaindua/ lanpostu iraunkorra	Ordaindua/ aldi baterako lanpostua	Ordaindu gabea	Langile boluntarioak	GUZTIRA
Zuzendaritza	70,7	9,8	7,3	12,2	100,0
Langile espezializatuak	62,9	19,6	4,4	13,1	100,0
Administrazioko langileak	78,7	9,3	1,3	10,7	100,0
Mantentze-langileak eta garbitzaileak	78,4	14,9	0,0	6,8	100,0
Zaintza- eta segurtasun-langileak	84,1	15,9	0,0	0,0	100,0
Bestelako langileak	76,5	4,9	8,6	9,9	100,0


Oinarria: 64 Museo eta Bilduma

Administrazioko lanak burutzen dituztenak eta babes-langileak eta transbertsalak (mantentzea, garbiketa eta segurtasuna) dira ordaindutako enplegu iraunkor gehien dutenak. Aldiz, profesional teknikoen artean ohikoagoa da aldi baterako kontratazioa. Zuzendaritzan eta langile espezializatuen artean daude ordaindu gabeko langile edo boluntario gehien.

5.3. LANGILEEN BANAKETA GENEROAREN ARABERA

Euskadiko Museo eta Bildumei atxikitako giza baliabideen artean emakumezkoak dira nagusi. Azpiegitura hauetako hamar langiletatik sei baino gehiago emakumeak dira. Kultura-sektore hori feminizatua den arren, alde nabarmenak daude lanbide-kategoriak generoaren arabera aztertuz gero.

53. irudia. Museo eta Bildumetako langileen banaketa, generoaren arabera (%). 2012



Oinarria: 64 Museo eta Bilduma

54. irudia. Museo eta Bildumei atxikitako langileak, generoaren eta lanbide-kategoriaren arabera (%). 2012

Lanbide-kategoria	Gizonak	Emakumeak
Zuzendaritza	52,4	47,6
Langile espezializatuak	27,6	72,4
Administrazioko langileak	25,8	74,2
Mantentze-langileak eta garbitzaileak	56,8	43,2
Zaintza- eta segurtasun-langileak	68,3	31,7
Bestelako langileak	38,3	61,7

Oinarria: 64 Museo eta Bilduma


Izaera administratiboagoa edo espezializatuagoa duten lanpostuetan emakumeak daude gehienetan. Zuzendaritzako postuetan, aldiz, generoari dagokionez alde handirik ez dagoen arren, gizonezkoak apur bat gehiago dira. Babes-postuetan eta transbertsaletan alde handiagoa dago generoari dagokionez, eta gizonezkoak dira nagusi, batez ere zaintza- eta segurtasun-langileen kasuan.

5.4. LANALDI-MOTA

Lanaldi osoak dira nagusi kultura-jarduera honetan lan egiten duten profesionalen artean, zehatz esateko, museoetako langileen % 65,2k lanaldi osoa du.

Lanaldi partziala dutenen kasuan, lanaldi erdia baino gutxiagokoak dira nagusi. Langileen % 59,5ek horrelako lanaldia du eta % 40,5ek lanaldi erdia edo apur bat handiagoa.


55. irudia. Museo eta Bildumetako langile-banaketa, lanaldiaren arabera (%). 2012



Oinarria: 64 Museo eta Bilduma

Lanaldi-motari dagokionez, museoetako langileetan aldeak daude lanbide-kategoriaren arabera. Zaintzako eta segurtasuneko langile ia guztiek lanaldi osoa dute; mantentze lanetan eta garbiketara aritzen direnen kasuan, aldiz, lanaldi motaren arabera portzentajeak berdina dira.

56. irudia. Museo eta Bildumei atxikitako langileak, lanaldi-motaren eta lanbide-kategoriaren arabera (%)



Oinarria: 64 Museo eta Bilduma

Nahiz eta zuzendaritzako eta mantentze-lanetako langileek lanaldi partziala izatea ohikoa ez izan, pisu garrantzitsua du kategoria honetako langileengan. Gainerako langileen kasuan (administrariak, langile espezializatuak eta beste kategoriak), langile guztien % 60 baino gehiagok lanaldi osoa du.

6.

DATU EKONOMIKOAK


Kapitulu honetan, Euskadiko Museo eta Bildumetako datu ekonomikoak aztertzen dira; zehatz esateko, lortzen dituzten finantzazioa eta diru-sarrerak eta jardueraren ondoriozko gastuak aztertu dira.

6.1. FINANTZAZIOA ETA SARRERAK

Finantzazio-iturriei buruzko galderak erantzun dituzten 42 Museo eta Bildumek emandako datuen arabera, ia museo-espazio guztiek bide desberdinak erabiltzen dituzte. Zehatz esateko, % 85,7k bi bide edo gehiago dituela esaten du. Finantzazio-bide bakarra duten museoen artean diru-laguntza sektore publikotik jasotzen dutenak dira nagusi.

Iturri bat baino gehiago dituztenen artean, hiru bideen konbinazioa dutenak dira nagusi (sarrera propioak, sektore publikokoak eta ekarpen pribatuak). Bi finantzazio-iturri dituzten erakundeen kasuan, sarrera propioak eta diru-laguntza publikoak dituztenak dira nagusi.


57. irudia. Museoen eta Bildumen finantzazio-iturriak (%). 2012



Oinarria: 42 Museo eta Bilduma

Diru-sarrera propioak aipatu dituzten Museoen eta Bildumen (38 erakunde) finantzazio-iturri nagusia sarreraren salmentari lotuta dago (% 84,2). Garrantzitsua da beste sarrera batzuk aipatzea ere, hala nola, espazioen alokairua, beste salmenta batzuk, etab.


58. irudia. Museoek eta Bildumek sortutako diru-sarrera propioak (%). 2012



Oinarria: 38 Museo eta Bilduma (erantzun anitza)

Sektore publikoko sarreraren bidez finantzatzen diren Museo eta Bildumen artean (39 erakundek aipatu dute aukera hau), finantzazio-iturri nagusia tokiko administrazioaren diru-laguntzak dira. Bigarren tokian daude erkidegoko diru-laguntzak (% 56,4). Oso gutxi dira Estatuko administrazio orokorreko diru-laguntzak jasotzen dituztenak eta, ia bat ere ez Europar Batasuneko jasotzen duena.

59. irudia. Museoen eta Bildumen finantzazio-iturri publikoak (%). 2012




Oinarria: 39 Museo eta Bilduma (erantzun anitza)

6.2. GASTUEN KAPITULUA

Atal ekonomiko honi erantzun dioten 41 erakundeen datuak kontuan hartuta, 2012. urtean 58,9 milioi euroko gastuak kontabilizatzen dira.

60. irudia. Museoen eta Bildumen gastuak (%). 2012



Oinarria: 41 Museo eta Bilduma

Euskadiko Museo eta Bildumen gastu nagusia ondasun eta zerbitzuetako ohiko gastuen partida da, guztiaren % 65 baino apur bat gehiago. Bigarren tokian, % 27,8rekin, museoaren zerbitzura dauden langileen ordainsarien gastuak daude (soldata gordinak eta Gizarte Segurantzarako kuotak).

Museo eta Bildumetako inbertsioak gastu osoaren % 5,1 baino ez dira. Gasturik orokorrenak museoetako funtsak erostekoak dira, erakundearen bildumarako gauzak erostekoak alegia. Obretan eta beste gastuetan (lursailak, higiezinak edo inbertariatuta daitezkeen ondasun higigarriak erosteko, esaterako) egiten den inbertsioak pisu txikiagoa du inbertsioen barruan, ehunekoak oso antzekoak diren arren.


7.

MUSEO-FUNTSAK

Azkeneko kapitulu honetan museo-funtsei buruzko 2012ko daturik nagusienak aztertu dira, hau da, museo publikoei esleitutako ondasun kulturalen multzoa edo, museo pribatuen kasuan, erakundeari edo pertsona fisiko titularrari esleitutakoa.

Atal honetarako informazioa eman duten Museo eta Bildumek 2012ko abenduaren 31n 826.444 unitateko museo-funtsa eratzen zuten.

61. irudia. Bildumaren beraren museo-funtsak edo beste erakundeei dagozkienak (%). 2012




Oinarria: 59 Museo eta Bilduma

Funts hauen % 97,6 museoaren bilduma orokorrekoak dira, hau da, museo publikoen kasuan, organo titularrek esleitutako funtsak eta, museo pribatuen kasuan, erakundearen edo museoaren titularra den pertsona fisikoaren jabegoko funtsak.

Gainerako museo-funtsak (% 2,4) beste erakundeetatik datoz edo partikularrek utzi dituzte erakunde hauetan. Bilduma egonkorreko funts guztien % 1,5 beste erakundeetan dago.


62. irudia. Museo-funts egonkorrak, gaiaren arabera sailkatuta (%). 2012



Oinarria: 59 Museo eta Bilduma

Parte hartu duten Museoek eta Bildumek bilduma egonkorreko funts-kopurua gaiaren arabera banakatu dute. Funts guztietatik ehuneko handiena natura-zientzietakoei dagokie (funtsen % 79,0). Gainerakoak beste gaienak dira eta nahiko modu proportzionalan banatuta daude.


63. irudia. Museo-funts egonkorak, museo edota bilduma tipologiaren arabera (%). 2012



Oinarria: 59 Museo eta Bilduma

Datu hau bat dator Museoak eta Bildumak tipologiaren arabera banatzearekin. Horrela, natura-zientzia eta historia naturaleko museoak dira museo-funts gehien dituztenak (% 72,1), hori dela eta, bilduma egonkorreko funtsen ehunekorik handiena natura-zientziak gaien dago.

